
AKTIBITATE ETA HEZKUNTZA EGITASMOENTZAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUTEGIA

Udalbatzarrak 2000.06.22an onartua

Udalbatzarrak 2000.12.20an aldatua

2000.09.05ko GAOean argitaratua

1.-Arrasateko Udalak bertako eskolaumeentzat Hezkuntza sustatu eta zabaltzeko asmoz gogotik ekin dio Arrasateko Udalaren eta eskola komunitate berberaren onurarako jarduerak edo ekimenak bultzatzeari.

2.- Horri dagokionez, Arrasaten antolatzen diren jarduera desberdinei laguntzeko politika egokia eratu ahal izateko, ezinbestekoa da hezkuntza jarduerak garatzeko dirulaguntzak araupetzen dituen araudia ezartzea, Udaleko aurrekontu-baliabideek ahalbidetzen duten neurrian.

3.- Toki Jaurpidearen Oinarrieei buruzko apirilaren 2ko 7/ 1985 Legearen arabera, Toki Erakundearen Erregimeen Juridiko eta Funtzionamenduaren Araudi Organikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 errege dekretuaren arabera, Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/ 1988 Legearen arabera eta gainerako xedapenen arabera hezkuntza jardueretarako dirulaguntzak emateko araudia aurkezten da.

1.KAPITULUA IZAERA OROKORREKO XEDAPENAK

1. Artikulua.

KONTZEPTUA.- Toki erakundeek duten hezkuntza sustatzeko eskumenaren barruan eta dirulaguntzak hartuz, Udalaren kontura, Korporazioak eman dezakeen edozein laguntza zuzena edo zeharkakoa, ekonomikoki baloragarria, jarraian aipatzen diren bezalakoak, dirulaguntzaz babestea helburu du:

1)Ikastetxeek, ikastetxeetako ikasleek edo herriko eskola-komunitateko elkarteek egindako Hezkuntza, kultura eta kirol aktibitateak(AUKEAK kudeaturiko udal kirol instalazioen erabilaren fakturazioa barne), eskoletako hezkuntza proiektua, material didaktikoa ez ohikoa eta berritzailea, sariak(ikasturte bukaerako sari tradizionalak), bekak eta aurretiaz aztertutakoan, erakunde publikoek finantzatzen ez dituzten hezkuntza zerbitzuak eta gizarte-ikuspegitik begiraturik, interesgarriak jotzen direnak.

2) Eskola komunitatean euskararen erabilera sustatu edo bultzatzeko aktibitateak zein egitasmoak.

3)Komunitatearen hezkuntza garapenerako programak eta aisialdirako hezkuntza programak.

4)Azpiegiturazko gaiekin, higiezin zein higigarri diren gaien erosketarekin eta amortizagarri izaera duen ekipamendu-erosketarekin zer ikusia duten proposamenak ez dira subentziogarriztat hartuko.

5) Araudi honetan dirulaguntzak banatzeko ezartzen diren irizpideei eta prozedurari jarraiki, Batzordeak gehienezko dirulaguntza kontzeptu gisa, kontsignatuko ditu ikastetxe bakoitzarentzat kontsignazioak.

6)Halaber, dirulaguntza hauek ez dira erabilgarri izango eskolen mantenu zein funtzionamendu-gastuei egozteko, funtzionamendu-irizpidea aplikaturik duten ikastetxeentzako salbu, eragin guztietara aipatu ikastetxe hauek soilik indize hori aplikatzearen ondorioz ateratzen den dirukopurua erabil dezakete funtzionamendu zein mantendu-gastuei egozteko.

2. Artikulua.

XEDEA.-Araudi honen helburua, Arrasateko udalerrian dirulaguntzak emateko prozedura eta irizpideak egituratu eta finkatzea da. Halaber, udal eskumenekoa diren zerbitzu eta jarduerak osatu edo ordezkatzeko prestazioak baldintza berdinetan lortzea ahalbideratu nahi zaie Arrasateko eskola komunitateko partaideei eta derrigorrezko hezkuntzako eskola-adinaren barruan arrasatear ikasle duten Arrasateko kanpo dauden entitateei, (1) nahiz orokorrean hiritarreei.

3. Artikulua.

Dirulaguntza emateak borondatezko eta behin behineko izaera izango du eta ez dira jarraibide gisa inbokatua izango.

4. Artikulua.

Araupeturiko dirulaguntzen zenbatekoak inolaz ere ezin izango du gainditu, berak bakarrik edo bestelako Herri Administrazioek edo erakunde publiko zein pribatuak emandako dirulaguntza edo laguntzen batera, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostoa.

2.KAPITULUA ESKATZAILEAK

5. Artikulua.

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dute:

A)Udalerrian helbideraturik eta udalerritik kanpo , 2.artikuluaren (1) apartatutuan aipatzen diren baldintzapean dauden lukro asmorik gabeko ikastetxeek eta hezkuntza zein kultura elkarteek, beti ere horiekin, Udalak admiministraziozko hitzarmen partikularrak izenpetuta ez dituenean.

B) Udalerrian helbideraturik eta udalerritik kanpo, 2.artikuluaren (1) apartatutuan aipatzen diren baldintzapean dauden lukro asmorik gabeko ikastetxeek eta hezkuntza zein kultura elkarteek, beti ere horiekin, Udalak admiministraziozko hitzarmen partikularrak izenpetuta dituenean.

c) Udalerrian helbideraturik eta udalerritik kanpo (1) apartatutuan aipatzen den bezala, dauden Hezkuntza-komunitatearekin loturiko entitateek eta pertsona fisikoak soilki, edo beti ere, lukro asmorik gabe behin behineko izaera izango duten jarduerak antolatuko dituen taldearen izenean.

3.KAPITULUA PROZEDURA

6. Artikulua.

Bere urteroko aurrekontuaren prestakuntzan Hezkuntza Batzordeak dirulaguntzak emateko dirukopuru orokorra hiru apartatuetan zehazturik proposatuko du: a) Ikastetxeei banatu beharreko dirukopurua b) Ikasleen Guraso Elkartei banatu beharreko dirukopurua c) Hainbat aktibitate zein proiektutarako dirukopurua, zenbateko guzti hauek, gero Udalbatzak onartu eta berretsi beharko dituen.

7. Artikulua.

Hezkuntza komunitateko entitateek euren aktibitateak, programak eta abarretarako subentzinoa jasotzeko eskariak aurkezteko epea irailaren 15tik urriaren 10era zehazten da.

Ekintza puntaletarako dirulaguntza eskaerak gutxienez ekintza burutuko den eguna baino hilabete bat lehenago aurkeztu beharko dira.

8. Artikulua.

Dirulaguntza-eskaerekin batera ondoko agiri hauek aurkeztuko dira:

a). -Legezko ordezkariak duenak sinatuko du eskabidea.

b) -Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira: .

1)-Jarduera zehatzetarako eskabideetan, programatutako jarduerak zehazten dituen egitasmoa. Agertu egin beharko dira zeintzuk diren helburuak, diru-sarreraren eta gastuak aurrekontua, aurreikusi daitekeen partaide-kopurua, non eta noiz gauzatuko diren jarduerak, etab.

2)- Urteko programetarako eskabideetan:

-Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu banakatuak.

-Aktibitateen egitarauak.

-Elkarte eskatzailearen baliabideak eta azpiegitura.

-Jarduera edo programa beretsurako bestelako administrazioek edo erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntza edo laguntzengatiko diru-sarrerak jasoko dira bertan. Horrez gain programa edo jarduera garatzeagatik lorturiko berezko diru-sarrerak barne hartu beharko dira.

c) Elkarrekin edo ikastetxeak izan ditzakeen guztiak hartzen dira diru-sarreratzat. Urteko edo unean uneko

programetarako ez dira gastu arruntzat hartzen inbertsioak edo azpiegitura edo elkartekideei jarduera garatzeagatik eskatutako hobariak edo sariak edo gurasoei edo familiakoei jarduereretan parte hartzeagatik ordaindutakoa.

9. Artikulua.

Eskatzaileak aurkeztu duen proiektua osatu gabe dagoela edo nahikoa zehaztu ez dela Batzordeak ikusiz gero, 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko. Epe hori igaro eta zuzenketa egin ez bada, eskaera besterik gabe, artxibatuko da eta agiriak eskatzaileari itzuliko zaizkio.

10. Artikulua.

Aurreko artikuluan aipaturiko agiriak Udaletxeko Erregistroan aurkeztuko dira.

4. KAPITULUA DIRULAGUNTZAK BANATZEKO IRIZPIDEAK

11. Artikulua.

Kalkulorako abiapuntua, ikastetxeetako kontusaileei dagokienez:

a)Aktibitateak eta proiektu subentziorriak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat egindakoak izango dira, hots, 0-16 urte bitarteko ikasleek egindakoak.

b)Eskola bakoitzeko hasierako kalkuloa egiteko, hezkuntza etapaka nolabaiteko aktibitate-egozpena egiten zaio bakoitzari, kontuan izanik, egun, DBH hezkuntza etapa, aktibitate gehien eta dibertsifikaziorik handiena duena dela, etapa honi %100eko proiektzioa egotzen zaio, Lehen Hezkuntzako etapari %95 eta Haur Hezkuntzari %90. Behin kalkulatu ondoren, ikasle kopuru osoarekiko etapa bakoitzak duen ikasle-kopuruaren portzentajea, lehen etapa bakoitzari egotzitako aktibitate-portzentaiarekin biderkatuz, nolabaiteko partizipazio-zenbakia emango du.

Jarraian, urte horretan banatzeko aurrikusita duen dirukopuru globala biderkatuko da zenbaki horrekin eta zenbaki honek adieraziko du etapa bakoitzeko zenbat diru banatu nahi den. Geroago, etapa bakoitzeko zenbakia kontuan hartuko da zatiketa egiteko eta eragiketa horrek emango du IKASLEKO ETA HEZKUNTZA ETAPAKO Udalak emango dituen dirulaguntzak.

c) Behin kalkulaturakoan, ikastetxe bakoitzak duen ikasle kopuruaren arabera zenbat dirulaguntza dagokion zehaztuko da eta gero, dirukopuru hori modulatzeko ondoko adierazle edo irizpideak erabiliko dira:

1)Udalarena diren eraikinetan aritzen diren ikastetxeei, SFXabier ikastola eta Umezaintza, Udalaren mantenu-zerbitzutik kanpo daudenak hain zuzen ere, nolabaiteko laguntza ematea proposatzen da, batetik, horrela Udalak bere eraikinekiko duen zaintza-beharra ziurtatzeaz gain, ikastetxe horiei eraikin horiek baldintza onenetan mantentzeko obligazioa galdatzen dielako eta bestetik, aintzat hartuz, urtean zehar, eraikin horien instalazioak eskolaz kanpoko ordutegian hainbat kultur elkartek, Udalaren oniritzerekin, erabiltzen dituztenez eta erabilpen horiek sortzen dituzten funtzionamendu-gastuak ikastetxeen kontura izaten direlako.

Hortaz, Udalaren eraikin bakoitzeko %1'5ko gehikuntza proposatzen da.

2) D ereduan eta Murgiltze-ereduan zentru bakoitzak dituen ikasgela-kopuruarekiko adierazlea.

Egun, euskararen normalkuntza hezkuntza-arloan gauzatzeko ikastetxe guztiak ahalegin handiak egiten ari dira (D ereduaren goranzko bilakaera, murgiltze-ereduaren ezarpena, eskolaz kanpoko ekintzak, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak e.a.)

Izan ere, hezkuntza eta hizkuntza ikuspuntutik begiraturik, eskola euskaldunaren bilakaera neurtzeko erabil daitekeen ratioetariko bat izan delakoan, D ereduan eta murgiltze-ereduan matrikulaturik ikastetxe bakoitzak dituen ikasgelen portzentairi nolabaiteko indizea aplikatzea proposatzen da, kalitateko eskola euskaldunaren bilakaera saritzeko, hezkuntz-ereduaren kontzeptua dirulaguntzaz babesteko interesgarritzat begiesten baita.

D EREDUA

MURGILTZE-EREDUA

%0-25-	%0'5		%0-15-	%0'25
%25-35-	%1		%15-25-	%0'5
%35-45-	%2		%25-35-	%1
%45-55-	%3		%35-45-	%1'5
%55-65-	%4'5		%45-55-	%2
%65-75-	%6		%55-65-	%3
%75-85-	%7'5		%65-75-	%4
%85-100-	%9		%75-85-	%5
			%85-100-	%6

3) Almen ikastolari dagokionez, eragin guztietarako dirulaguntzen kalkulua egiteko, ikasle bakoitzeko eta hezkuntza ereduak kalkulatu diren zenbatekoen %50 egotziko zaio, beti ere, derrigorrezko hezkuntzaren adinean dituen Arrasateko ikasle-kopurua kontuan harturik.

12. Artikulua.

Kalkulatoriko banaketan, ikastetxeei, hainbat entitateri edo pertsona fisikoei dagozkien dirukopuruak beti ere gehienezko irizpide gisa harturik izango da, jarraian aipatzen den bezala benetan eskatzaileak jasoko duen dirukopurua txikiagoa izan baitaiteke.

13. Artikulua.

Aurkezturiko dirulaguntza-eskaerak eta berauen baliospen ekonomikoak Udalaren Hezkuntza batzordeak aztertutakoan, berak aukeratuko ditu ikastetxe edo entitate eskatzaile bakoitzari diruz lagunduko dizkien aktibitateak edo programak, aurkezturiko proiektuen artean

lehenetasuna dutenak eta banatuko den dirukopurua zehaztu beharko du., eskatzaile guztientzat nolabaiteko dirulaguntza banaketaren aurreikuspena egingo duelarik.

14. Artikulua.

Ikasleen Gurasoen elkarteentzat urtero Batzordeak bere aurrekontuan proposamen globala proposatuko du, behin elkarte hauen eskabideak aztertutakoan ondoko irizpideak erabiliko ditu dirulaguntzak banatzeko eta asignatzeko:

a) Elkarte guztien artean dirulaguntza osoaren %30, berdin banatzea, horren ondorioz, elkarte bakoitzak dirukopuru berbera jasoko duelarik.

b) Dirulaguntza-partidaren %20 elkartearen artean banatzea, ikastetxe bakoitzak duen ikasle-kopuruaren arabera.

c)Partidaren gainerako %50 elkarte bakoitzak ikasturtean zehar egin dituen aktibitateen arabera banatzea, horretarako batzordeak lau aktibitateen multzo-mota kontuan hartuko ditu diruz laguntzeko:

- 1.-Gurasoen eskola edo Gurasoak hezitzeko aktibitateak.
- 2.-Ikasleei zuzendutako hezkuntza- programa orokorren aktibitate osagarriak antolatzea.
- 3.-Euskaraz egindako aktibitateak edo euskara bultzatzeko antolaturiko aktibitateak.
- 4.-Antolaturiko aktibitateak auzo edo inguruko komunitatean eragina edo isla izatea”.

15. Artikulua.

Hainbat proiektu zein aktibitate egiteko dirulaguntza eskabideei dagokienez, urteroko aurrekontuaren elaborazioan edo urtean zehar jasotzen badira, Hezkuntza batzordeak eskabide guztiak aztertutakoan Gobernu batzordeari aurkeztuko dizkio proposamenezikiko ebazpenak, une orotan, Gobernu batzordeak udaletxearen erregistroan sartzen denetik gehienez hiru hilabetera hartuko ditu erabakiak, dirulaguntza eskabide guztiei erantzuna emango zaielarik.

16. Artikulua.

Orohar, urteko lehendabiziko hiruhilekoaren bukaeran, banatu beharreko dirulaguntzak erabakiko ditu Gobernu batzordeak, diktamena onartzean dirukopuruaren %60 ordainduko zaie onuradunei, gainerako %40 behin egindako gastua justifikatu ondoren ordainduko delarik.

17. Artikulua.

Dirulaguntzak emateko ondoko irizpideak hartuko dira oinarritzat:

- 1.- Programa edo aktibitatearen eragina eta udalerrriaren garapenari egiten dion ekarpena (programaren edo aktibitatearen hezkuntza, gizarte eta kultura-errentagarritasuna).
- 2.- Antolatze lanetan, egituraketan eta diru aldetik talde eskatzaileak egingo duen ahalegina.
- 3.- Programaren zehazpen maila eta errealismoa, edukiari zein helburuei eta aurrekontuari begira.
- 4.- Aktibitateak ekarriko duen euskararen sustapena.
- 5.- Aurkezturiko programaren kalitatea, orijinaltasuna eta aukera.
- 6.- Aurkezturiko programaren kalitatea eta berrikuntzak.
- 7.- Ikastetxe edo elkartearen hezkuntza proiektuarekiko osagarritasuna.
- 8.- Eskatzaileari dagokionez eskatzaileak bestelako finantza bideak lortzeko frogaturiko zailtasuna.
- 9.- Eskatutako dirulaguntzaren proportzioa eskola edo talde eskatzailearen berezko baliabideekiko.

5.KAPITULUA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

18. Artikulua.

a)Dirulaguntzaren oinarri den jarduera burutzea.

b)Jarduera burutu dela Administrazioaren aurrean egiaztatzea bai eta dirulaguntzaz baliatzeko bete beharreko betekizunak eta baldintzak betetzea ere.

c)Udal Administrazioak emandako dirulaguntza eta laguntzen gainean egin beharreko egiaztapen jarduketa guztiak onartzea.

d)Hala badagokio, Udal Administrazioari jakinaraztea edozein Administrazioaren edo erakunde publiko zein pribaturaren dirulaguntzak edo laguntzak jaso dituela helburu beretsurako.

19. Artikulua.

Diruz lagundutako aktibitateak, programak eta abar urtearen abenduaren 31a baino lehenago burutu beharko dira.

20. Artikulua.

Emandako dirulaguntza guztiak ahoz eta idatzizko euskararen erabilera normalizatu eta sustatzeko Udalak 110 elkarrekin sinaturiko hitzarmen pean izango da.

21. Artikulua.

Aktibitatearen garapenean idatzizko dokumentazioa edo propaganda aterako balitz, Udalaren Hezkuntza sailaren laguntza jaso duela adieraziko duen espresioa ezartzearen baldintzara lotuta geratuko da; horretarako dokumentazio guzti hori Hezkuntza Batzordean aurretiaz aurkeztu beharra izango dute.

22. Artikulua.

Ez dira emandako dirulaguntzen helburuen aldaketak edo xede-aldaketa onartuko.

23. Artikulua.

Aktibitate ero jarduera baterako dirulaguntza eskabidea aurkezteak araudi hau onartu eta ezagutzea ekarriko ditu.

24. Artikulua

Araudi honetan jasotako betebeharrak eta xehetasunak ez betetzeak dirulaguntza erretiratzea ekar dezake berarekin.

6.KAPITULUA JUSTIFIKAZIOA ETA KOBRANTZA

25. Artikulua.

Araudi honek dioenaren arabera emandako dirulaguntzak jasotzeko ezinbestekoa izango da diruz lagundutako aktibitateak edo jarduerak eginak izatea eta Udaletxean ondoko agiriak aurkeztea:

1)Diruz lagundutako jarduerari buruzko oroitidatzi txostena.

2)Diru-sarrera eta gastuen azken balantzea. Hasieran aukezturiko aurrekontua, izandako gastuak eta dagozkien ordainketa-egiaztariak eta helburuak, jarduera edo programa beretsurako bestelako Administrazioek edo erakunde publiko edo pribatuek edo gurasoek emandako dirulaguntza edo laguntzengatiko diru-sarrerak jasoko dira bertan. Horrez gain,

programa edo jarduera garatzeagatik lorturiko berezko diru-sarrerak barne hartu beharreko dira.

- 3) Aktibitateak sortutako inprimakien ale bana aurkeztu beharko da.
- 4) Dirulaguntzarako eskabidean zehaztatutako helburuen betearazpen-maila

26. Artikulua.

Aurkeztu beharreko fakturen jarraitu beharreko prozedura:

- 1) Fakturak, originalak edo fotokopiak izango beharko dira, guzti hauek udal-langileak konpultsatu beharko lituzkelarik.
- 2) Dirulaguntza eman den urtean dataturik egotea.
- 3) Hartzailearen lizentzia fiskalaren zenbakia edo dagokion N.A.N.
- 4) Eskabidea egitean aurkezturiko aurrekontura mugatu edo doitzea.

27. Artikulua.

Ekitaldiari dagokion Udaletxearen aurrekontuan izendutariko dirukopuruaren banaketa horrela egingo da:

Behin Gobernu Batzordeak banaketa onartu ondoren emandako dirukopuruaren %60 ordainduko zaio eskatzaileari. Gainerako %40 egindako gastua justifikatu ondoren ordainduko da, beraz, faktura guzti hauek urteko azaroaren 10etik 25era bitartean aurkeztu beharko dira Hezkuntza Sailean, onarturiko dirulaguntzaren gainerako %40 kobratu ahal izateko.

28. Artikulua.

Arrasateko Udalak dirulaguntza gisa ordaindutako zenbatekoak eta dirulaguntza ordaindu zenetik sortutako berandutze-korrituak itzultzeko eskatu ahal izango du, honako gorabehera hauetako bat ematen denean:

- a) Aurkezturiko egitasmoan aurreikusitako jarduerak gauzatu ez direnean.
- b) Horretarako eskaturiko baldintzak izan gabe, dirulaguntza lortu denean.
- c) Egindako gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan denean edota bestelako Administrazioen edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzak lortzen direnean.
- d) Emandako dirulaguntzaren helburua betetzen ez denean.
- e) Jardueraren material grafiko publizitarrioren Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailaren babes aipatu ez denean.
- f) Eskaturiko dokumentazioa epez kanpo aurkeztu denean.

29. Artikulua.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarretzat hartuko dira, eta premiamenduzko administrazio-prozedura ezarriko da kobratzeko.

30. Artikulua.

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Batzordeak diruz lagundutako jardueren jarraipena egingo du. Hori dela eta, edozein unetan eska ditzake nahi dituen azalpenak.

XEDAPEN GEHI GARRIETARIK LEHENA

2000ko irailaren 1ean sartuko da indarrean.

XEDAPEN GEHIGARRIETARIK BIGARRENA

Araudi honek aldatu arteko indarraldia izango du.